

AITONA IPUIN KONTALARI

Batzuetan, gauza batengatik edo besteagatik gure gurasoek ezin izaten gaituzte haur eskolara ekarri. Eta horregatik, zenbaitetan, aitona-amonak izaten dira laguntzen gaituztenak, eramateko edo bertatik jasotzeko ardura hartzen dutenak. Besteetan berriz, gure gurasoekin batera etortzen dira zeregin horretan laguntzera. Horrela ari gara Karrikako haur-eskolan, poliki-poliki, batzuk eta besteak ezagutzen: attona Inaxio, amona Arantxa, Edurne edo Axun; aitona Gabriel eta amona Maite, amona Pili, amatxi Miren, aitite Mikel, amona Pepi...

Horrelako egun bat izan zen attona Inaxio bere bilobatxoaren bila etorri eta, artean siestatik esnatu berriak ginela, ipuin bat kontatu zigun lehena, eta hara non, guri gustatu!

Hori ikusirik bigarren ipuin bat ere kontatu zigun beste egun batean, eta gero hirugarrena, eta ondoren laugarrena.... Ia ohitura bilakatu zaigun arte. Mota guztietako ipuin eta istorioak kontatzen dizkigu gainera: esne-saltzailearena, Fernando Amezketarrarena... Orain gutxi lagun bat ere ekarri zigun, Gotzon, teniseko pilota batekin egina, eta orain, gure gozamenerako, bien artean kontatzen dizkigute istorioak.

Guk, gure partetik hitz xume hauen bidez siestatik esnatzea hain une goxo eta kuttuna bihurtzen digun attona Inaxio eskertu nahi genuke, eta baita gainontzeko aitona-amonak, amatxi, aitite eta amoni guztiak ere!